

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 7/2023 Erabakia, urtarrilaren 24koa. Onespena ematea Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomoen lanpostu zerrendak, langile lan kontratudunen soldata taulak eta foru kargu publikodunen eta behin-behineko langileen ordainsariak eguneratzeari**

Foru Gobernu Kontseilua organo eskuduna da Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onesteko, baita funtzionarioen eta langile lan kontratudunen lan baldintzak onesteko ere.

Arabako Lurralde Historikoaren 2022rako Aurrekontua gauzatzeari buruzko abenduaren 21eko 33/2021 Foru Arauaren (14/2022 Foru Arauak aldatua) 24. artikulua funts baten hornidura gaitu zuen foru sektore publikoko funtzionario eta langile lan kontratudunei ordaintzeko produktibitate osagarri baten bitartez. Ekitaldi horretan, dagokion funtsa hornitu da eta banan-banan esleitu da benetako lanaldia betetzearekin loturik.

Halaber, esandako arauan aurreikusten da 2022ko ekitaldian aurreko apartatuan adierazitakoaren ondorioz ordain litezkeen zenbatekoei aplikagarria zaiela Estatuaren 2001erako Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 13/2000 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritakoa, ordainsari finkeo eta aldizkako barruan sendotzearen ondorioetarako. Hori guztia, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak, Lurralde Oreka Saileko foru diputatuak, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak eta Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak eguneratzea, 2022ko ekitaldirako sortutako produktibitate osagarriaren zenbatekoa lanpostu bakoitzari esleitutako berariazko osagarriaren barruan sartuz, hargatik eragotzi gabe haien zerbitzura dauden langileei esleitutako beste ordainsari kontzeptu aldakor batzuetan bidezkoa den sendotzea.

Bigarrena. Erakunde autonomoetako langile lan kontratudunen lansari taulak eguneratzea, 2022ko produktibitate osagarriaren zenbatekoa ordainsari kontzeptu finkeoaren barruan sartuz, hargatik eragotzi gabe haien zerbitzura dauden langileei esleitutako beste ordainsari kontzeptu aldakor batzuetan bidezkoa den sendotzea.

Hirugarrena. Era berean, eguneratu behar dira foru kargu publikodunei eta behin-behineko langileei dagozkien ordainsariak, Arabako Lurralde Historikoaren 2022ko Aurrekontua gauzatzeari buruzko abenduaren 21eko 33/2021 Foru Arauaren 24.3 eta 24.4 artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Laugarrena. Erabaki honek 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Seigarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakunde berean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan – Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik— xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 24a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Gizarte Politiken Saileko foru diputatua*

**EMILIO SOLA BALLOJERA**

*Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*

**ANA M. DEL VAL SANCHO**

*Funtzio Publikoko zuzendaria*

**ADOLFO LANDER VERA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**

*Gizarte Zerbitzuen zuzendaria*

**ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ**

*Kirol zuzendaria*

**ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GOMEZ**